


## Diru iturriak

Bi motatako sarrerak aurkituko ditugula pentsatzen dugu negozioa garatzen doan heinean:

1. Ordainketa bakarraren bidezko sarrerak, hots, bezeroak aldi bakarrean egindako ordainketatik eratortzen direnak:

- **Produktuen salmenta:** gure produktuak dendan saltzean lortuko ditugun sarrerak.
- **Arropa pertsonalizatzeagatik (neurri espezifikoak):** arropa zenbait neurritara moldatzeko aukera eskaintzen dugu, bezeroak ongi datorkion neurriak aurkitzen ez duen kasuan.



2. Ordainketa errepikarien bidezko sarrerak, alegia, zerbitzu edo produktu jakin bat erabiltzeko ala salmenta ondorengo euskarriaren truke bezeroak modu jarraian egiten dituen ordainketetatik eratorritakoak:

- Nahiz eta arropa denda baten horrelako kasurik aurkitu ezin izan, baliteke bezero batzuk gure dendarekiko interesa sortzea eta hauek gure produktuak maiz erosten hastea. Bezero horientzako, txartel berezi batzuk sortuko ditugu (10 produktu erosi ondoren) beharpen batzuekin, hauen fideltasuna irabazteko asmoz.

Horrez gain, hauek dira hasiera batean negozioa garatzen lagunduko dizkiguten kapitalak:

- **50.000€ “Maestros de la costura” programan irabazitakoak:** jakin bezala, enpresaren bost sortzaileak izan ginen programa horretako parte-hartzaileak. Gutako batek saria irabazi zuenez, 50.000€-ak (lortutako saria), proiektu honetan inbertitzea erabaki genuen. Halere, besteok ere dirua inbertitu genuen.
- **Diru laguntzak:**
  - EMEKIN laguntza: emakume ekintzaileak izateagatik eskatu dezakegun laguntza da.
  - **Enpresa Berria Sozietate Mugatua** sortzeagatik Eusko Jaurlaritzak emango dizkigun diru-laguntzak (enpresa berria izateagatik)

